



da! Eta eskertzekoa, noski, halako festa bat ezingo baikenuke eskolako 36 familiekin antolatu!», dio pozez zoratzen.

Zuzendariaren arabera, eskolak ez du behar berezirik uneotan. Hori bai, Eskola Txikien Festarekin aterako duten dirua zerbitzuak mantendu eta patioa apur bat atontzeko erabiliko dute.

Korrika abiatuko dute biharko eguna, izan ere, 10.30ean egingo den harrera ekitaldiaren ondoren, kros txikiak egingo dira. 0 eta 6 urteko haurrek 200 metroko ibilbideari ekingo diote, eta 12 urte bitartekoek, aldiz, 450 metro izango dituzte helmuga bitarte. Arratsaldean izango da

Txinkorta eskolak 2000.
urtean estreinatu zuen
eraikin berria.
GAUR8

ekitaldi izarra, izan ere, Euskal Herriko pailazo ezagunenek, Pirritx, Porrotx eta Marimototsek emanaldia eskainiko dute 16.00etan. Haur eta gaztetxoei zuzendutako puzgarri eta tailerrak egun osoan izango dira.

Aurtengoan Eskola Txikien Festak Gure Esku Dago ekimenarekin egiten du bat. Bidania-Goitzera hurbiltzen diren herriarrek ez dute Durango eta Iruñea lotuko dituen giza katean parte hartzeko aukerarik izango, baina, aldiz, erabakitze-ko eskubidearen alde agertu nahi dutenek Eskola Txikien Festaren barruan ere argazkia ateratzeko aukera izango dute.

Egitaraua

10:30: Harrera ekitaldia. **Jarraian.** Kros txikiak. 0-6 urtekoentzat, pilotalekua eta plaza arteko ibilbidea, 200 metro. 7-12 urtekoentzat, pilotalekua, eskola eta plaza arteko ibilbidea, 450 metro. **Ondoren:** Ekintza desberdinak. 0-6 urtekoentzat, tailerrak eta puzgarriak. 7-12 urtekoentzat, jolasak. **13:30:** Bazkaria. **15:00-18:00:** Puzgarriak. **15:30-17:30.** Tailerrak eta bideo emanaldiak. **16:00:** Pirritx, Porrotx eta Marimotots, «Bizipoza» emanaldiarekin. **18:00:** Zozketa. **Egun guztian zehar:** Skandalue Elektrotxaranga.

Desertua, gure etorkizuna

Naiara Garzia

Garapena, aurrera, eboluzioa... hitz hauek gi-

zakiaren historia islatzen dute, Erdi Arotik aurrera bereziki. Baina bilakaera horretaz gainera, dagoeneko gudu bat galdu dugula onartu beharko genuke gizakiok. Hau da, zentzu batean aurrera egin dugun bitartean, beste zentzu batean atzera egin dugula onartu, eta ez gara gai izan erdibideko puntu bat aurkitzeko.

Gizakiak gure planetan utzi duen zantzuaz ari naiz. Izan ere, aldaketa klimatikoa jada ez da mehatxu bat, 80ko hamarkadan bezala, non ekologistek eta «Integral» aldizkariak behin eta berriro mezu bera azpimarratzen zuten. Etxean irakurtzen genuen aldizkari horren iragarpenen ondorioz munduaren amaieraren inguruko nire lehenengo amesgaiztoak izan nituen: lurra lehertu eta gizakia (bereziki nire familia) unibertsoan galtzen zen, elkarri eskuetik heldu ezinik itotzen ginen bitartean, flotatzen, grabitate eza zela-eta, betiereko bakardade batera kondenaturik.

Aldaketa klimatikoa errealitate bat da, ama lurra gure lehenetasunetako bat izan beharko lukeen arren. Gauza bera esan zuen Seattle buruzagi indiarrek 1855. urtean, AEBetako presidenteari bidalitako mezu batean, hain zuzen honek Washington eraikitzeak haien lurra «erosteko» nahia azaldu zuenean.

Hona hemen Seattle buruzagiak esandako hitzak: «(Gizon zuriak) erosi eta lapur daitezkeen ardiak edo perla dirdira-tsuen antzera sal daitezkeen gauzak bezala tratatzen ditu ama lurra eta zeru senidea. Gosez, lurra irentsi eta ez du ezer ere utziko, basamortua besterik ez. (...) Gizakiak tu egiten dionean lurrari, bere buruari egiten dio tu». •